



© KONTZERTUA

Ivo handia

▬ MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Betidanik izan naiz Ivo Pogorelichen mireslea. Eta, egia esan, ezin dut eman arrazoi konkretu bat miresmen horretarako. Pianojole ona, oso ona da; bere belaunaldikoen artean, nahiz eta onena ez izan, nabarmentzen da. Baina esan behar da musikari berezia dela, ez dela publiko guztien gustukoa, hain bitxia eta askotan zentzugabea da bere jotzeko era. Hala eta guztiz ere, oso *personaia* erakargarria da, eta taula gainean ikus eta entzuten duzunean harrapatu egiten zaitu, dudarik gabe.

Pentsamendu horiek guztiak bueltan nituen buruan Ivo Pogorelich maisuaren azkeneko Gasteizko errezitaldian. Hirurogei urte ditu, eta ez da 80ko hamarkadan pianoaren nazioarteko panoraman iraultza ekarri zuen mutiko hura, guapoa, delikatuia, dotorea. Elkarrizketa askotan aitortu duen bezala, bera ez zen jabetzen bere glamouraz, hori Deutsche Gramophon diskoetxearen promozioa zen. Une honetan, alde batera utzi ditu marketin-kanpaina basati horiek, eta aurkezten da bera den bezalaxe: gizon lasaia, konprometitua eta diskretua.

Gasteizko kontzertua bere bitxikeriaren erakustaldi izugarria izan zen. *Tempi* geldoak eta diseziozko interpretazioak izan ziren ezaugarri nagusiak. Den-dena agerian utzi zuen, motibo bakoitza, azpi-melodia txikiena garbi entzuten ziren bere bertsioetan. Musika biluzia erakutsi zuen.

Hasteko, Mozarten *Adagio si minorrean KV 540* zinez dramatikoak entzun genuen, agian gehiegi. Jarraian, eta gordintasunaren bidea jarraituz, Liszten *Sonata si minorrean S. 178* eskaini zuen. Kontraste izugarriak egin zituen, *pianissimi* delikatuena, eta *fortissimi* gorgarriak, den-dena muturreraino eramanez.

Errezeitaldiaren bigarren zatian, plater interesgarriena aurkeztu zuen. Hain

MOZART, LISZT EA
SCHUMANNEN OBRAK

IVO POGORELICH

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA,
MAIATZAREN 23A



IVO POGORELICH PIANOJOLEA, GASTEIZKO KONTZERTU HANDIEN XIV. ZIKLOAN.

konplexuak diren Robert Schumannen *Estudio sinfonikoak, op. 13*, hil ondorengo bariazioak barne, oso bereziak iritsi zitzaizkigun. Hasi zen hil ondorengo estudioekin, oso mistikoak, eta hasiera hori nahiko arraroa egin zitzaigun. Baina obraren gorputzaren bertsioa benetan dotore eta sakona izan zen. Salbatu zituen zailta-

sun teknikoak –sufirimenduz, esan behar da–, eta ikuspegi orkestrala eman zion interpretazioari. Hori bai, jasan zituen Pogorelich gaixoak ez tulak, karameloak, mobilak... Pena da, baina halakoxea da gure publikoa. Bis gisa, Sibeliusen *Bals tritea*-ren pianorako moldaketa jo zuen. Maitemindu egin ginen berriz ere. ●